

NIRE BIOGRAFIA

Nire izena Mainer Madrazo Begiristain da, 1998 ko abenduaren 4an jaio nintzen eta Ordizian bizi naiz nire guraso eta 19 urteko anaiarekin.

Jakintza Ikastolara joaten naiz eta DBH ko bigarren mailan nago.

Gustuko ditut kirolak, batez ere futbola eta baita ere gimnasia erritmikoa, kirol hau praktikatzen dut eta.

Bigarren aldia da bertso lehiaketa batean sari edo aipamen bat lortu dudala, eta bai lagunek eta familiak ere asko lagundu didate.

Gaia: Krisi ekonomikoa

Doinua: Orioko balearena

Arazo asko daude
momentu hauetan.
Batek kezka jarri du
azken urteetan.
Galdera konplexu bat
dugu ahoetan,
zer egin dezakegu
guk krisi honetan?

Lanik gabe hainbeste
jende dago eta.
Batek baino gehiagok
hartu du maleta.
Hemengo ibilerak
buruan gordeta
Beraien aurpegiak
tristuraz beteta.

Langabezian geroz
ta jende gehiago.
Esperantza galduaz
gero ta azkarrago.
Konpontzeko moduren
bat baldin badago.
Ni laguntzeko behintzat
noski prestu nago.

Baina krisi honetan
dena ez da txarra.
Guk ondo pasatzeko
badugu beharra.
Ume, gazte, helduen
aukera bakarra
Gauza txarrak ahaztuz
gertu irrifarra.

Zure inguruetan,
dauden guztiakin.
Eta emango dugun
laguntza horrekin.
Gainera gero gehituz,
maitasunarekin.
Beti egongo gera
gertu beraiekin.

Egoera aldatuz
gauzak normalera.
Itzuliko baitira
beraien lanera.
Hori iritsi arte,
goazen elkartzera
Mundua hobetzeko
borroka egitera.